## KULTURA SAILA

## Zk-6017

AGINDUA, 2003ko urriaren 14koa, euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroen erregistroa arautzen duen 2003ko abuztuaren 6ko Kultura Sailburuaren Aginduan gertatutako hutsak zuzentzeko.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 155/1993 Dekretuak 24.2 artikuluan xedatzen duenez, aldizkarian egindako hutsak edo omisioak maila bereko xedapen edo ekintza batez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira eta, horiek zuzentzearen ondorioz, xedapen, ekintza edo iragarkiaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroen erregistroa arautzen duen 2003ko abuztuaren 6ko Kultura Sailburuaren Agindua 2003ko irailaren 10ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (176 zk.), eta bertan aipatutakoen moduko hutsak gertatu direnez, dagokien zuzenketa egiten da honen bidez.

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra.***– Zuzentzea 2003ko abuztuaren 6ko Aginduko 3. artikuluko 1. paragrafoa. Hona hemen zuzenketa:

Honakoa dioenean:

«1.– Edozein alta edo baja-inskripzio, baita euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroen erregistroan inskribatutako sailkapeneko edozein aldaketa ere, HABEren Zuzendaritza Batzordearen lehendakariaren ebazpenez egingo da, horri dagokion espedientea bideratu ondoren.»

Honakoa esan behar du:

«1.– Edozein alta edo baja-inskripzio, baita euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroen erregistroan inskribatutako sailkapeneko edozein aldaketa ere, Kultura Sailburuaren aginduz egingo da, horri dagokion espedientea bideratu ondoren.»

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek ondorioak izango ditu argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko urriaren 14a.

Kultura sailburua,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

## N°-6017

ORDEN de 14 de octubre de 2003, de corrección de errores de la Orden de 6 de agosto de 2003, de la Consejera de Cultura, por la que se regula el Registro de euskaltegis y centros de autoaprendizaje de euskera.

El artículo 24.2 del Decreto 155/1993, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los errores u omisiones materiales que no se deduzcan claramente del contexto y cuya rectificación pueda suponer una real o aparente modificación del contenido o sentido de la disposición, acto o anuncio, se salvarán mediante disposición del mismo rango.

Advertido error en la redacción de la Orden de 6 de agosto de 2003, de la Consejera de Cultura, publicada en el BOPV n.º 176 de 10 de septiembre de 2003, por la que se regula el Registro de euskaltegis y centros de autoaprendizaje de euskera, se procede a realizar la oportuna corrección.

DISPONGO:

***Artículo único.***– Rectificar el artículo tercero, apartado 1, de la Orden de 6 de agosto de 2003 en los siguientes términos:

Donde dice:

«1.– Toda inscripción de alta y de baja, así como cualquier modificación en la clasificación inscrita en el Registro de euskaltegis y centros de autoaprendizaje de euskera, se efectuará por Resolución de la Presidenta del Patronato Rector de HABE, una vez tramitado el correspondiente expediente al efecto.»

Deberá decir:

«1.– Toda inscripción de alta y de baja, así como cualquier modificación en la clasificación inscrita en el Registro de euskaltegis y centros de autoaprendizaje de euskera, se efectuará por Orden de la Consejera de Cultura, una vez tramitado el correspondiente expediente al efecto.»

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente a su publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de octubre de 2003.

La Consejera de Cultura,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.